

losu Aizpuru Larrañagak bere tesia irakurri du

2015/07/03

Uztailaren 1ean, goizeko 11:00etan Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko losu Aizpuru Larrañaga Doktoregaiak bere doktore-tesia aurkeztu zuen Mondragon Unibertsitateko Ikastetxe nagusiko Areto Nagusian. Tesiaren izenburua Energy efficiency improvement of Li-ion battery packs via balancing techniques eta tesi zuzendariak: Josu Galarza eta Ander Goikoetxea. Gainera Bikain Cum Laude kalifikazioa lortu zuen. Honetaz gain, Europako Doktore aipamena jaso du.

Epaimahaia horrela osatu zen:

- Mahaiburua: Helmuth Biechl (Kempton University of applied sciences) Dk. Jn.
- Mahaikidea: Andre Martinez (EIGSI) Dk. Jn.
- Mahaikidea: Igor Villarreal Sarria (IKERLAN) Dk. Jn.
- Mahaikidea: Joaquín J. Chacón (Albufera Energy Storage S.L.) Dk. Jn.
- Idazkaria: Unai Iraola Iriondo (Mondragon Unibertsitatea) Dk. Jn.

Tesi lana litio ioizko metatze sistemen energia efizientzia hobetzean datza. Litio ioizko serie zelden efizientzia hobetzeko beharrezkoa da sistema orekatzaileak erabiltzea. Tesi hau zelden arteko desoreken analisisian eta desoreka hauek konpentsatzeko beharrezkoak diren oreka sistemen diseinuan zentratzen da. Oreka sistema aktibo konpetitiboen diseinua, oreka sistema pasiboekin lehiatzeko da tesiaren lan inguru nagusienetakoa.

